ZUMAIA

# 'Francoren bilobari gutuna' antzezlana ikusi ahal izango da gaur Aita Marin

Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek idatzitako obra da. Ikuskizuna 22:00etan hasiko da

:: SARA UTRERA

ZUMAIA. 'Francoren bilobari gutuna' antzezlana ikusteko aukera izango da gaur, 22:00etatik aurrera, Aita Mari aretoan. Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu antzerki konpainiek bat egin dute Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek idatzitako eta Ximun Fuchsek zuzendutako obra hau eskaintzeko.

Ander Lipus, Patricia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko Redondo, Pako Revueltas eta Erika Olaizola izango dira aktore lanetan.

Sarrerak 9 euro balio dute (sei euro Aita Mariko bazkideentzat eta Gazte Txartelarekin erosita).



'Francoren bilobari gutuna' antzezlana ikusteko aukera izango da gaur, Aita Mari aretoan. :: ARTEDRAMA

# Abierto el plazo de inscripción para los cursillos de invierno en Lubaki

Los cursos serán trimestrales y se impartirán de lunes a viernes,tanto por la mañana como por la tarde

:: DV

ZUMAIA. El polideportivo Lubaki de Zumaia ofrece un amplio programa de cursos deportivos para este invierno, con actividades de sala y de agua. Los cursos se impartirán de lunes a viernes por la mañana y por la tarde y podrán participar en ellos tanto adultos como jóvenes y niños, sean socios abonados o no.

Las personas interesadas deberán realizar la inscripción en el propio polideportivo. Todos los cursos impartidos serán trimestrales: comenzarán el 9 de enero de 2017 y finalizarán el 24 de marzo.

### Actividades de sala

Cycling, total training, gap, aerobic, pilates, gimnasia de mantenimiento o jump son las actividades de sala que ofrece el polideportivo para este curso 2017.

Entre todos los cursos programados, destaca las clases de Zumba. Este segundo trimestre se recuperan las clases para las y los niños de entre 7 y 14 años por lo que dicha actividad se impartirá en tres grupos diferenciados por edades: niñas y niños de entre 7 y 10 años por una parte, de 10 a 14 años por otra y finalmente todas las personas mayores de 14 años.

### Actividades de agua

Con la llegada del nuevo año hay también quienes se animan a darse un chapuzón en el agua y para todos ellos el polideportivo ofrecerá clases de natación. Los bebés de más de 6 meses tendrán su primera oportunidad para aprender a nadar. Asimismo, se mantienen las clases para los niños de más de 3 años. En cuanto a los adultos se diferenciarán cuatro grupos.

# Estatus politikoari buruzko herri galdeketa maiatzaren 7an egingo da Zumaian

Prozesua martxan jartzeko sinadura bilketa egingo du Ontziratu taldeak bihartik aurrera

:: S. U.

ZUMAIA. Datorren udaberrian, eta Gure Esku Dagoren dinamikaren baitan, Euskal estatuaz galdeketa egingo dute Urola Kostako zortzi udalerrik. Maiatzaren 7an izango da eta 'Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?' galderari erantzun beharko diote herritarrek. Aurretik, herri galdeketa egin ahal izateko, sinadura bilketa egingo du Zumaiako Ontziratu talde eragileko kideek. Izan ere, prozesua abian jarri eta modu ofizialean deitu ahal izateko, herrian erroldatuta dauden biztanleen %10en sinadura bildu beharko da, 1.000 herritarren babesa jaso beharko da gutxienez. Bihar bertan hasiko dira sinadurak biltzen eta horretarako, mahai bat jarriko dute Erribera kalean.

Ontziratu taldeak gogorarazi duen bezala, «Euskal herritar guztiok dugu etorkizuna erabakitzeko eskubidea, eta herri galdeketen bidez, eskubide hori gauzatu nahi dugu. Herritarrek euren borondatea eta iritzia agertzeko ariketa demokratikoa izango da».




Zumaiako Ontziratuko kideak, azaroan egindako aurkezpenean. :: S. U.

## LABUR



Erakusketa prestatzen. :: S.U.

### 'Matrikulak Bi' erakusketa, gaurtik

Pedro Luengo azpeitiarraren 'Matrikulak Bi' erakusketa zabalduko da gaur, 19:00etan, Oxford aretoan. Paisai urbanoak, bizikleta zaharrak eta erretratuak ikusgai izango dira hilaren 31a arte.

### Zumaiako Futbol taldeen partidak

Bihar, Aita Mari zelaian: 10:00etan, Infantil Neskak-Mutriku eta 11:30ean, Infatntil Txiki taldea-Urola. Etxetik kanpo: 10:00etan, Lehen Mailako Kadete mutilak eta Lagun Onak neurtuko dira; 18:15ean, Erregional Neskak eta Mutriku eta 18:30ean, Ohorezko Jubenil Mutilak eta Mondragon. Igandean, Aita Marin: 9:15ean, Benjamin neskak- Anaitasuna; 10:00etatik 13:00etara, Zumaiako Benjamin Mutilak-Lagun Onak- Zarautz; 15:30ean, Ohorezko Infantil Mutilak eta Ilintxa eta 17:30ean, Preferente Mutilak-Mondragon. Etxetik kanpo: 10:40etan, Lehen urteko Alebin Mutilak eta Zarautz neurtuko dira; 11:50etan, Partizipaziozko Alebin Mutilak eta Zarautz eta 12:30ean, Errendimentuzko Alebin Mutilak eta Amaikak Bat

### Pulpo Eskubaloi taldeko partidak

Bihar, Lubaki kiroldegian: 10:00etan, Brakys Pulpo-Bergara KE; 11:30ean, Zalla Taberna Pulpo eta Egia 1; 12:45ean, Kalari Taberna Pulpo-Ibaiondo Taberna; 16:00etan, Garaje Axiri Pulpo-GF Zuazo Senior eta 17:45ean, Zarazpe Pulpo-Karibe Zaharra Legazpi. Etxetik kanpo: 11:15ean, Neumaticos Bayona Pulpo eta Hotel Txarriduna Elgoibar neurtuko dira; 11:30ean Txikixa Taberna Pulpo eta Gure Auzune; 12:45ean. Canterias Dominguez Pulpo eta Bankoa Elgoibar; 13:00etan, Trapaia Pulpo eta Leizaran Eskubaloia B eta 16:00etan, Ttakun Taberna Pulpo eta Bera Bera Urdina. Igandean, Lubakin: 9:30ean, Edu Optika Pulpo-Ereintza Aguaplast; 11:00etan, Decotena Pulpo-Indupime Basauri eta 12:30ean, Galdona Burdindegia Pulpo-Egia 2.